

ENERGIA-KOMUNITATEEN ERAKETA ETA KUDEAKETA
ETA HORIEI LOTUTAKO EGUZKI-ENERGIA
FOTOVOLTAIKOKO INSTALAZIOETAN
(AUTOKONTSUMO KOLEKTIBOKO ERREGIMENEAN)
INBERTSIOA BULTZATZEKO GASTEIZKO UDALAREN
DIRULAGUNTZA-DEIALDIA ETA OINARRI
ARAUTZAILEAK 2024. URTERAKO DEIALDIAREN

AZALPEN-GIDA





Nork sortu du gida hau?

Gida hau [Gasteizko Eraldaketa Komunitarioko Bulegoak](#) sortu du. Energia-komunitateak sortzeko interesa duten herritarrei, elkarteei, ETE-ei, langile autonomoei, tokiko erakundeei (baita menpekoei) eta interesa duten entitateei aholkularitza eta laguntza ematen dien bulegoa da.

Norentzat da gida hau?

Gida hau Gasteizko udalerrian energia-komunitate bat sortu eta eguzki-energia fotovoltaikoko instalazio bat abian jarri nahi duten herritarrei zuzenduta dago.

Gidaren helburua

Gida honen bitartez *Energia-komunitateen eraketa eta kudeaketa eta horiei lotutako eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan (autokontsumo kolektiboko erregimenean) inbertsioa bultzatzeko Gasteizko udalaren dirulaguntza-deialdia eta oinarri arautzaileak 2024. urterako dirulaguntza-deialdiaren eskaera egiteko eta hau justifikatzeko jarraitu beharreko pausoak azaltzen dira.*

Gida hau Gasteizko udalaren dirulaguntza deialdi ofizialeko hainbat atalen laburpena da, eta bertan azaltzen dira deialdiaren eskaera eta justifikazioari buruzko oinarriak. Dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak jasotzen dituen dokumentu ofiziala [abenduaren 2an ALHAOn argitaratu zen](#).

Azalpen-gida honekin batera, informazio-gida bat egin da eta bertan dirulaguntzen deialdia eta horren alderdi garrantzitsuenak aurkezten dira.

Gidaren edukia

1. Dirulaguntzak emateko prozedura
2. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea
3. Eskabideko akatsak zuzentzea
4. Emateko ebazpena
5. Uko egitea
6. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea
7. Dirulaguntza justifikatzea



1. Dirulaguntzak emateko prozedura

Dirulaguntza hauen izaera eta helburua kontuan hartuta, **konkurrentzia sinplearen** prozedura erabiliko da dirulaguntzak emateko, hau da, deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituzten eta eskatutako dokumentazio guztia aurkezten duten onuradunei emango zaie dirulaguntza, **aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren mugaraino**.

Hau da, eskabidea aurkezten den eguna eta ordua hartuko dira kontuan laguntzak ebazteko eta lehentasuna ezartzeko. Dirulaguntza eskaria egin duen pertsona edo entitate baten eskariak akatsen bat izanez gero edo dokumenturen bat falta ezker, akatsak zuzendu edo dokumentazio osagarria aurkezten den eguna eta ordua hartuko dira erreferentziazat.

2. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezterakoan hainbat puntu izan behar dira kontuan. Alde batetik aurkezteko epea eta beste alde batetik eskaera egiteko beharrezkoak diren dokumentuak.

2.1 Aurkezteko epea

Deialdiaren laburpena ALHAOn (Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean) argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da **eskabideak aurkezteko epea**, eta **2025eko martxoaren 31n bukatuko da**.

2.2 Non egin dirulaguntzaren eskaera

Dirulaguntzaren eskaera egiteko hainbat aukera daude:

- Aurrez aurre Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan.
- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>.
- Bestelako eskaera-moduak 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan eskuragarri

Entitate onuradun bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu behar du, deialdi ofizialaren 5. oinarrian azaltzen dena. Hau da, **deialdiko bi kontzeptuetarako dirulaguntza eskatzen bada, eskaera bakarrean egin behar da**.

Deialdi hau argitaratu aurretik 2024an eraturako energia-komunitateek bi kontzeptuetarako dirulaguntza eskatu ahalko dute aldi berean, hau da, energia-komunitateen eraketa eta kudeaketa errazteko eta eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioen inbertsiorako, beti ere autokontsumo kolektiboko erregimenean bada.

2.3 Beharrezko dokumentazioa

ALHAOn argitaratutako dirulaguntzaren oinarriekin batera dagoen eta udalaren webgunean eskuragarri dagoen III. eranskinean ageri den eredia erabili beharko da eskabidea egiteko. **Eskabide guztiekin batera, deialdian ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da.**



Eskaria egiterakoan **bete beharreko eskabide-formularioak hurrengoa barne hartzen du:**

- Erantzukizunpeko adierazpena, deialdian ezarritako irizpideak ezagutu, onartu eta betetzeari buruzkoa.
- Erantzukizunpeko adierazpena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzkoa.
- Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako debekuetako batean ere ez egoteari buruzkoa, hartara onuradun izan ahal izateko.
- Gasteizko Udalari baimena ematea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzeari buruzko ziurtagiriak ofizioz eskatzeko.

Eskabidea egiterakoan **hurrengo dokumentazioa erantsi beharko da:**

1. Entitate eskatzailearen eraketa egiaztatzen duen dokumentazioa: erakundearen estatutuak aurkeztuko dira.

2. Entitate eskatzailearen datuak:

- jarduera ekonomikorik gabeko bazkideen kopurua
- jarduera ekonomikoa duten pertsonen kopurua
- emakumeen kopurua
- migratzaileen kopurua
- kontsumitzaile zaurgarrien kopurua

3. Gasteizko Udalari baimenik ematen ez bazaio zerga-betebeharrak egunean edukitzearen inguruko ziurtagiriak ofizioz eskatzeko, **zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.**

4. Jarduketaren dokumentazio espezifikoak:

- **Garatu beharreko jarduketaren memoria deskribatzailea:** garatu nahi den jarduketaren deskribapen zehatza, kronograma barne, jarduketaren eta/edo proiektuaren hasiera- eta amaiera-datak adierazita.
- Eguzki-energia fofovoltaikoko instalazioetan egindako inbertsioen kasuan, **instalazio fofovoltaikoari buruzko dokumentazio hau ere sartuko da:**
 - Aukeratu den autokontsumo kolektibo mota.
 - Eguzki-instalazioaren aurretiazko azterketa xehatua, teknikari eskudunak sinatua, instalazioaren ezaugarri teknikoak jasotzen dituena: unitate-kopurua eta modulu fofovoltaikoen eta inbertsoreen potentzia unitarioa, metagailurik dagoen ala ez, ezaugarriak (marka, eredu, mota, etab.).



- Ekipoen fabrikatzailearen zehaztapen teknikoaren kopia erantsiko da.
 - Estalkian jartzeko aurreikusi den ainguraketaren ezaugarriak.
 - Instalazioa proposatutako kokalekuan ezartzeko planoak.
 - Energia elektriko hornituko diren hornidura-puntuen kode unibertsalak (HPKB) identifikatzea.
 - Instalazioaren lokalizazio-planoak (helbidea) eta kokapen-planoak (estalkia, lurzorua, fatxada, etab.); instalazioa egin nahi den estalki, lurzoru edo fatxadaren argazkia.
 - Energia-kalkuluak: ekoiztutako, autokontsumitutako eta sarera isuritako energia. Eskariaren urteko estaldura.
 - Instalazioak kokatzekoak diren higiezina edo orubea etorkizunean erabilgarri egongo dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- **Aurrekontua, gastu-partidetan ondo banakatua.** Alde batetik energia-komunitatea sortu eta kudeatzeko aurrekontua, eta beste alde batetik proiektu fotovoltaikoan inbertitzeko aurrekontua, bi kontzeptuetarako eskatzen bada dirulaguntza. Kontzeptu bakarrerako eskatzen bada dirulaguntza, kontzeptu horren aurrekontua aurkeztu beharko da bakarrik, gastu-partidak ondo banatuta. Diruz lagundu daitekeen kostua argi eta garbi bereiziko da.

5. Jarduketarekin lotutako dokumentazio osagarria:

- Eskrituren/eraketa-aktaren eta estatutu sozial eguneratuen kopia.
- Pertsona edo entitate eskatzailearen izenean dagoen kontu korrante baten titulartasunaren ziurtagiria.
- Ordezkaritza bidez jardunez gero, ordezkatzeko ahalmena egiaztatzen duen agiria.

Gasteizko Udalak egokitzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahal izateko eskatzaileei, aurkeztutako dirulaguntza-eskabidea balioetsi ahal izateko.

3. Eskabideko akatsak zuzentzea

Eskabidea jasotzen delarik, baldin eta behar bezala osaturik ez badago, akatsen bat badago edo agindutako dokumenturen bat falta bada, organo instrukzio-egileak **hamar (10) eguneko epea emango dio eskatzaileari** akatsak konpondu edo falta diren dokumentuak edo agiriak aurkezteko.

Epe hori eskatzaileari jakinarazten zaion egunaren biharamunean hasten da. Eskatzaileak ez baditu epe horretan eskatutako akatsak zuzentzen edo falta diren dokumentuak aurkezten eskabidea bertan behera utzitzat joko da, ebazpena tarteko.



4. Emateko ebazpena

Prozedura ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten denetik zenbatzen hasita. Epe hori igaroz gero eskatzaileak ez badu jakinarazpenik jaso, dirulaguntza-eskabidea ezetsizat joko da.

Behin hiru hilabeteko epe hori igaro ondoren dirulaguntza eman edo ukatzeko ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, **eta eskatzaileak aukera izango du errekurtsioa aurkezteko erabakia hartzen duen organoaren aurrean, hilabeteko epean**, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Momentu horretan ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, **bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko**, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Jakinarazpenik ez jaso ezker, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Gasteizko Udalaren iragarki-taulan argitaratuko dira.

5. Uko egitea

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, eskabide normalizatuaren bidez egin ahalko dio **uko pertsona edo entitate onuradunak dirulaguntzari**, eta Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariak onartzen duenean izango ditu ondorioak.

6. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea

Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako **edozein zirkunstantzia aldatuz gero, entitate onuraduna Gasteizko Udalari jakinaraztea** behartuta dago.

Pertsona edo erakunde onuradunek Gasteizko Udalari eskatu beharko diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, emakida-ebazpena aldatzeko, baldin eta egindako aldaketa horiek dirulaguntzan emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea badakarte.

Aldaketa horiek baimendu egingo dira, baldin eta horiek egiteko arrazoia ezusteko zirkunstantziren bat bada edo jarduketa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak badira, eta, betiere, dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.



7. Dirulaguntza justifikatzea

7.1 Dirulaguntza justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa entregatzeko epea

Diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik (energia-komunitaren sorkuntza eta/edo eguzki-instalazio fotoboltaikoaren instalakuntza), **onuradunak hiru hilabetekoa epe izango du dirulaguntza justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko.**

7.2 Dirulaguntza justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa

Dirulaguntzaren onuradun den entitateak dirulaguntza justifikatu beharko du, justifikazio-kontu arrunta aurkeztuz. Justifikazio horrek hurrengo dokumentazioa izan beharko du:

1. Egindako proiektuaren **azalpen-memoria:**

- **1. kontzepturako**, energia-komunitatearen eraketa egiaztatzen duten dokumentuak (estatutuak eta zuzendaritza-batzordearen eratzeko-akta).
- **2. kontzepturako**, egindako jarduketaren/proiektuaren azalpen-memoria teknikoa, instalazio fotovoltaikoaren azken proiektua, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren aurrean instalazioa legezatu dela egiaztatzen duen agiria eta instalazioaren argazkiak barne. Web-orriaren kasuan, konfigurazioaren, ezaugarrien eta funtzionalitateen deskribapen-memoria aurkeztuko da, baita helbidea eta aldi baterako sarbide-gakoak ere.

2. **Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa**, justifikazio-kontu arruntaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu, bi kontzeptuetarako:

- **Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoen justifikazioa**, hauek jaso izan ezker.
- Diruz lagundutako **proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.**
- Proiektu edo jardueraren **diru-sarrera eta gastuen balantzea.**
- **Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.**
- **Gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.**
- **Erantzukizunpeko adierazpena.**

Dokumentu bakoitzak izan behar dituen atalak ondo azalduta ALHAOn argitaratutako deialdi ofizialen agertzen dira.

Diruz lagundu daitekeen gastu edo inbertsioaren zenbateko osoa justifikatu beharko da, ez emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Hau da, egon diren gastu guztiak, nahiz eta dirulaguntzan emandako zenbatekoa baino gehiago ala gutxiago izan.

Justifikazioa egiteko eskatutako dokumentuetan akatsen bat baldin badago edo dokumenturen bat falta bada, **hamar (10) eguneko epea** emango zaie pertsona edo



erakunde interesdunei horiek zuzen ditzaten, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Diruz lagundutako jarduketarako justifikatutako benetako gastua, hasieran aurreikusitako kostua baino txikiagoa bada, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako ehuneko aplikatuko zaio gastu txikiago horri, eskatzaileari ordaindu beharreko zenbatekoa zehazteko.



Azalpen-gida hau dirulaguntzaren eskaera egiteko beharrezkoak diren dokumentuak eta jarraitu beharreko pausoak zehazteko, eta dirulaguntza jaso ezker onuradunak dituen betebeharrak azaltzeko egin da. Dokumentu bakoitzeko zehaztapen guztiak eta bakoitzean ezarritako arautegia dirulaguntzaren deialdi ofizialean azalduta daude. Gida hau deialdi ofizialaren gehigarri bat da.

Dokumentuaren egilea:



Vitoria-Gasteiz
Eraldaketa Komunitariorako Bulegoa
Oficina de Transformación Comunitaria



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala